

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUn KARROZARIAREN LAN POLTSA SORTZEKO HAUTATZE PROZESUAREN DEIALDIA.

- **DEIALDIAN ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO HAUTAGAIEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA**
- **1.1 FASEA - PROBA PROFESIONAL TEORIKOA ETA 2.FASEA – PROBA PSIKOTEKNIKOAK ETA GAITASUNEKOAK EGITEKO DEIALDIA**

Goian aipaturiko Deialdian onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrendari buruzko alegazioak aurkezteko epea amaitu ondoren eta alegaziorik jaso ez denez, Hautatze Batzordeak,

ERABAKI DU

Lehenengo.- Hautatze prozesuan onartutako eta baztertutako hautagaien behin-betiko zerrenda onartzea eta argitaratzea (1.ERANSKINA).

Bigarren.- Deialdiaren oinarrietan xedaturikoaren arabera, **hautaketa prozesuan onartutako hautagaiei dei egiten zaie 1.1 Fasea – Proba Profesional Teorikoa eta 2. Fasea - Proba Psikoteknikoak eta Gaitasunekoak egitera joan daitezten 2023ko azaroaren 24an, 15:30etan, OTEIC Taldearen bulegoetan (Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Iraikina-1.solairua, Donostia).**

1. Fasea - Proba Profesional Teorikoa: Proba teoriko bat izango da, eta mekanikako eta karrozeriako ezagutza orokorrak baloratuko dira bertan. Horretarako, era askotako ariketak planteatu daitezke, test erakoak, arazoak eta garatzeko galderak.

Gutxienez 12 puntu lortu beharko dira, proban gehienez lortu ahal izango diren 20 puntuak oinarri hartuta.

2. Fasea – Proba Psikoteknikoak eta Gaitasun Probak: Hainbat proba psikotekniko eta gaitasun proba egingo dira, hautagaiek lanposturako behar diren gaitasunak eta trebetasunak dituzten ala ez ikusteko.

Fase honetan gutxienez 9 puntu lortu beharko dira, proban gehienez lortu ahal izango diren 15 puntuak oinarri hartuta.

Hautagaiei dei bakarra egiten zaie eta jatorrizko NAN, pasaportearen edo gidabaimena erakutsi beharko dute. Dokumentu horietako bat ez badute aurkezten, ezin izango dituzte probak egin.

Gogorazten da Hautaketa Batzordeak egiaztatu ahal izango duela hautagaiak Hautaketa Prozesuan zehar aurkeztutako dokumentazioa eta emandako informazioa egiazkoa dela, eta automatikoki deialditik kanpo utzi ahal izango dituela informazio faltsua aurkeztu duten hautagaiak.

Hautaketa Prozesuaren garapenarekin loturik sortzen den informazio guztia jakinarazteko, ondoko bide ofizial hauetan argitaratuko da:

- Web orria: <https://www.dbus.eus/beste-zerbitzu-batzuk/pertsonalaren-aukeraketa/>
- Donostiako Tranbia Konpainiako iragarki taula (Fernando Sasiain 7, Donostia)

Stua.: Hautaketa Batzordea
Donostia, 2023ko azaroak 22

1.ERANSKINA:

Hautaketa Prozesuan onartutako eta baztertutako hautagaien behin-betiko zerrenda.

ONARTUTAKO HAUTAGAIAK

KA23-001

KA23-003

KA23-004

KA23-005

KA23-006

KA23-007

BAZTERTUTAKO HAUTAGAIAK

KA23-002 (2)

KA23-008 (1) (2)

- (1) Ez du betetzen Titulazioari dagokion baldintza: Lanbide Heziketako titulazioa teknikari laguntzaile mailan, erdi-mailakoa edo lanpostuarekin zerikusia duen baliokidea.
- (2) Ez du behar bezala betetzen edo egiaztatzen lanbide-esperientziaren baldintza: 4 urteko esperientzia Karrozari gisa.